



## FINANTZA ZUZENBIDEA

### BERRIKUSPEN PROZEDURA BEREZIAK

*Irene SUBERBIOLA GARBIZU*

**AURKIBIDEA: I. Auzitegi Ekonomiko Administratiboa. II. Aurkaratu daitezkeen egintzak. III. Legitimatua. IV Prozedura. 1. Hasiera. 2. Izapidetza. 3. Amaiera. V. Deuseztatze errekurtoa**

#### I. Auzitegi Ekonomiko Administratiboa

Erreklamazio ekonomiko administratiboa, administrazioaren tributu egintzen aurka nahiz partikularren arteko zerga-gorabeheretatik eratorrikoen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu baino lehen nahitaez jarri beharreko errekurtoa da, Auzitegi Ekonomiko Administratiboetan gauzatzen dena. Ondorengo lerroetan erreklamazio honen ezaugarriak nagusienak aztertuko ditugu, hain zuzen, erreklamazioa ezagutzen duen foru erakundea, erreklamazioa jartzeko legitimatua, aurkaratu daitezkeen egintzak eta erreklamazioa gauzatzeko prozedura.

#### II. Auzitegi Ekonomiko Administratiboa

Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa (FAEA), azken auzialdian eta doako prozedura baten bidez, erreklamazio Ekonomiko Administratiboak ezagutzeko eta ebazteko eskumena duen organoa da.

Organikoki, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak (Araban Lege eta Administrazio Erakundea) Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren egituraren barruan egon arren, erabateko independentzia du funtzionatzeko: autonomoa da bere jardura antolatzeke, eta zergak aplikatzeko organoen eginkizunetik bereiz berrikusi eta ebazten ditu erreklamazio Ekonomiko Administratiboak, hots, zergak likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko jarduketak egiten dituzten organoetatik kanpo. Honela, Auzitegiko kideek modu pertsonalean eta banaka betetzen dituzte beren eginkizunak, kanpoko jarraibideei edo hierarkiei lotuta egon gabe.

Egiturari dagokionez, Auzitegia lehendakariak (zeinak zuzendari nagusiaren maila duen eta libreki izendatu eta kentzen den), eta sei bokalek nahiz idazkari batek osatzen dute. Azken hauek Diputatuen Kontseiluak izendatu eta kentzen ditu Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposatu ondoren.



Izendatuak Foru Aldundiko karrerako funtzionario eta goi mailako tituludunak dira, eta izendapena dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratzen da. Auzitegiak Batzar Osoan eta aretotan bildurik jarduten du, baita banaka ere edozein kideren bitartez. Auzitegiko Batzar Osoa lehendakariak, idazkariak eta izendatutako bokal guztiek osatzen dute. Erreklamazio Aretoa berriz bi dira: Zerga Itunduen Erreklamazio Aretoa eta Udal Zergen Erreklamazio Aretoa

Auzitegiaren erabakiak erakundea osatzen duten kide anitzek hartzen dituzte gehiengo; gehiengoarekin bat ez datorrenak idatziz eman dezake bere botoa, eta hala denean, hori aipatu beharko da erreklamazioaren ebazpenean. Ebazpenak auzialdi bakarrean ematen ditu eta erabakiok administrazio bidea agortzen dute, hots, Auzitegiaren erabakien kontra ezin daiteke jarri beste errekurtsorik (aparteko berrikuspen errekurtsua eta deuseztapen errekurtsuak salbu) administrazioko organoaren aurrean: jar daitezkeen errekurtsu bakarria (berrikuspen errekurtsua eta berraztertzea salbu) administrazioarekiko auzi-errekurtsua da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian.

### III. Aurkaratu daitezkeen egintzak

#### 1. Administrazioaren egintzak

TFAOren arabera Foru Auzitegi Ekonomiko administratiboari dagokio Foru Aldundiko organoek hurrengo arloetan emandako administrazio-egintzen aurka jartzen diren erreklamazioak ezagutzea:

- Zergen aplikazioa, hau da, kudeaketa, ikuskaritza eta zerga bilketa prozedurak.
- Zehapen prozedura, hots, zigorrak ezartzea.
- Zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen (salneurri publikoak, zehapenak...) bilketa.
- Auzitegi Ekonomiko Administratiboak berak bere ebazpenetan eginiko akatsak zuzentzea.
- Foru-zergen administrazioaren ebazpen irmoen kontra eta FAEAren ebazpen ekonomiko administratiboen kontra jarritako berrikuspen errekurtsu bereziak zuzentzea.
- Ogasun eta Finantza Departamentuko agintari edo organismoek Foru Diruzaintzako obligazioak aitortu eta likidatzea eta organo horrek Foru Diruzaintzaren kargura egindako ordainketekin zerikusia duten gaiak.
- Foru Aldundiaren eskumenekoak diren pentsio eta eskubide pasibo guztiak aitortu eta ordaintzea.
- Udal ogasunetako diru sarrerak diren zergei buruzko egintzak, ogasun horien legeria arautzaileak xedatutako kasuetan.
- Beste edozein gai, berriazko lege xedapen batek hala agintzen badu.



### 2. Partikularren jarduketak eta omisioak

Partikularren zergen arloko jarduketan edo omisioen kontra jarritako erreklamazioak direnean, FAEA da organo eskuduna baldin eta atxikipenari edo konturako sarrerari aplikatu beharreko arautegia dagokion Lurralde Historikoarena bada, edo jasanarazteko egintzen kasuan, egintza behar bezala gauzatu ez dela ulertzen bada, Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat etorrituz.

### IV. Erreklamazioa jartzeko legitimatuak

Honako hauek aurkez ditzakete erreklamazio Ekonomiko Administratiboak:

- Zergapekoek, atxikitzaileek eta, hala balegokie, zergen erantzuleek.
- Kudeaketako administrazio-egintza dela medio beren legezko interesak ukituak dituzten pertsonak.
- Foru Ogasunean kontu-hartzailetzaz arduratzen den organoak.

Erreklamazio ekonomiko administratiboak aurkezteko ez da abokaturik behar, baina nahi bada ordezkari bat erabil daiteke. Ordezkari bitartez jarduten bada, ordezkari ahalorde nahikoaz frogatu daiteke, notarioaren sinaduraz legezkatutako agiri pribatua aurkeztuta, edo, bestela, Auzitegiko idazkariaren aurrean *apud acta* eskuratu. FAEAak ez du idazkirik izapidetuko ordezkari frogatzeko eskakizuna betetzen ez bada. Legitimatua pertsona juridikoak direnean, sinatzen duen pertsona fisikoak frogatu beharko du ahalmena duela erreklamazioa jartzeko aplikaziozko arau edo estatutuei jarraituz.

### V. Erreklamazioa jartzeko legitimatuak

#### 1. Hasiera

Erreklamazio Ekonomiko Administratiboa interesatuak eskatuta, bere kasa edo ordezkariaren bitartez, jarriko da errekurritutako egintza jakinarazten denetik aurrera hilabeteko epean. Hilabetearen zenbaketa datatik-datara egiten da, jarraian aipatzen den dei edo jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita:

- Partikularren jarduketan edo omisioen kontrako erreklamazioen kasuan, erreklamazioa eragin duen egintza edo omisioa.
- Erreklamazioa jasotzen duen egintza.
- Erreklamazio Ekonomiko Administratiboa jarri aurretik berraztertze errekurtsioa aurkeztea erabaki bada, berraztertze errekurtsioari buruz Administrazioak ematen duen berriazko ebazpena.



## I. Irakasgaiak

Aitzitik, berraztertze errekurtoa jarri ondoren erantzunik jaso ez bada, hau da, isiltasun negatiboa dagoela ulertu behar dugunean, erreklamazio Ekonomiko Administratiboa berraztertze errekurtoa aurkeztu zenetik behin hiru hilabete pasatu ondoren jar daiteke. Dena den, interesatuak aukeran du berariazko ebazpenaren zain geratzea. Oro har, eta berariazko ebazpenaren zain geratzea ez bada aukeratzen, erreklamazio Ekonomiko Administratiboa aurkeztutako eskaera ezetsizat hartzen denetik aurrera jarri ahal izango da. Ezespena prozedura bakoitzak isiltasun administratiboari buruz dituen arauen arabera ulertuko da.

- Aldizkako muga-eguna duen eta talde bati jakinarazi behar zaion zorraren kasuan (udal zergak kasu), borondatezko ordainketa-aldian jarri daiteke erreklamazioa, edo epealdi hori amaitzen denetik hilabeteke epearen barruan.

Erreklamazioa egiteko, Foru Auzitegi Ekonomiko administratiboari zuzendutako idatzia aurkeztu behar da, modu presentzian Ogasun eta Finantza Saileko bulegoetan, Foru Aldundiko Erregistroetan edo kanpoko erregistroetan; posta ziurtatu bidez, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboari zuzendutako gutun-azal irekian eta data-zigilua barruan jarrita; edo modu telematikoan Foru Aldundiak onetsitako identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemaren bat erabiliz. Idazkiak hurrengo datu hauek jaso beharko ditu nahitaez (betetzen ez baditu zuzentzeko eskatuko zaio interesatuari):

- Izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa, interesa duenaren identifikazio fiskalaren zenbakia eta helbidea. Ordezkaritza bidez jardunez gero, ordezkaritzaaren identifikazio osoa jarri behar da.
- Erreklamazioa zein organotan jarri den.
  - Aurkaratutako administrazio egintza edo jarduketa, ebatzi zen eguna, espediente zenbakia eta espedienteari buruz komenigarritzat jotzen diren gainerako datuak.
  - Atxikipenei, konturako sarrerei, omisioei, faktura luzatu eta eman beharri eta ordezkoaren eta zergadunaren arteko harremanei buruzko erreklamazioetan, erreklamazioa jartzeko idazkia erreklamaturako pertsona eta helbidea ere identifikatu beharko dira eta, gainera, erreklamaturakoaren esku edo erregistro publikoetan dauden aurrekari guztiak gehitu beharko dira.
  - Erreklamazioa aurkeztu duenaren asmoa.
  - Jakinarazpenetarako adierazi den lekuaren identifikazioa.
  - Tokia, data eta idazkiaren sinadura.

Erreklamazio Ekonomiko Administratiboa jartzeak ez du zuzenean aurkaraturiko egintza eteten, salbu berme nahikoa aurkeztu denean zerga zorraren zenbatekoa osorik ordaintzeko edo zerga isun baten aurka erreklamatu denean, kasu horretan ez baita bermerik aurkeztu behar. Etetea gauzatzeko bermea behar bada, oro har, (Lurralde Historiko bakoitzean egon daitezkeen berezitasunekin) bermea hauetako bat izango da:

- Gordailuen Kutxa Nagusian dirutan edo balore publikotan egindako gordailua.
- Abal edo fidantza solidarioa, banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emana.



## I. Irakasgaiak

- Kaudimen aitortua duten herriko bi zergadunek emandako fidantza pertsonal eta solidarioa, zorra ez bada zenbateko handikoa.
- Halaber, eteteko erabakia har daiteke bermerik jarri behar izan gabe baldin eta interesa duenak frogatzen badu ebazpena ematean akats aritmetikoa edo materiala edo izatezko akatsa egin dela.

Aurkezpen-idazkian, alderdi erreklamatzailerak zuzenean erreklamazioa jartzeko eskaera egiteko aukera izango du, eta nahi izan ezker, eskaerarekin batera bere eskubidean oinarritutako alegazioak azaldu ahal izango ditu.

## 2. Izapidetza

Prozedura ofizioz egingo da, ezarritako epeak errespetatuz. Auzitegiak, kasua jaso ostean eta, hala dagokionean, espedientea burutu ondoren, erreklamazioan bertaratu diren baina errekurtsio-idazkian alegaziorik aurkeztu ez duten edo alegaziorik aurkeztuz gero izapide honetarako berariazko eskabidearekin egin dituzten interesdunei jakinaraziko die hilabeteko epea izango dutela alegazioen idazkia eta bidezko frogak aurkezteko. Alegazio-idazkia eskaera idazkia egiteko erabiltzen diren modu berberen bitartez tramitatuko da.

Atxikipen, konturako sarrera, jasanarazpen, faktura egin edo emateko betebeharrak eta ordezkariaren edo zergadunaren arteko harremani buruzko erreklamazioen kasuan, Auzitegiak errekurritua izan den pertsonari jakinaraziko dio erreklamazioa jarri zaiola, bertaratu dadin; horretarako pertsonatzeko-idazkia bidaliko dio. Honek eskura dituen edo erregistro publikoetan dauden aurrekari guztiak aurkeztu beharko ditu. Auzitegiak, era berean, aurkaratu den egintza eman zuen organoari txostena eskatu ahal izango dio, beharrezkoak diren arazoak argitzeko. Horretarako, txostenaren berri eman beharko dio erreklamatzailerari, honek dagozkion alegazioak aurkeztuko aukera emanez.

Edozein kasutan, aurreko izapideak alde batera utzi ahal izango dira baldin eta erreklamazioa jartzeko idazkian dauden alegazioen bitartez edo interesdunak erantsitako agirien bitartez egiaztaturik geratzen badira ebazpena emateko behar diren datu guztiak, datuok egiazkotzat eman ahal badira, edo argi ikusten bada erreklamazioa ez onartzeko arazoirenen bat badagoela.

Administrazioarekiko diru-erreklamazioen bidez, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboari espedientean eskaintzen diren egitatezko zein zuzenbideko arazo guztien berri ematen zaio, ebatzi ditzan. Ildo honetan berdin da interesdunek azaldu dituzten edo ez. Edozein kasutan, ezin izango da, inola ere, erreklamatzaileraren jatorrizko egoera txartu. Auzitegiak interesdunek planteatu ez dituzten arazoak aztertu eta ebaztea erabakitzen badu, beraiei jakinaraziko die alegazioak egin ditzaten.



### 3. Amaiera

Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak hasten duen prozedura honako kasuetan amaituko da: erreklamazioak oinarritzat duen eskubideari uko egiten zaionean, eskaera edo auzialdia bertan behera uzten denean, berau iraingitzen denean, auzia prozesutik kanpo konpontzen denean, eta ebazpena ematen denean. Erreklamatzailerak uko egiten badu edo atzera egiten badu, eskaera iraingitzen bada edo prozesutik kanpo konpontzen bada, Auzitegiak jarduketak artxibatzeko erabakia hartuko du, horretarako bidezko arrazoiak emanaz.

Prozedura ebazpen bidez amaitzen denean, Auzitegiak ezingo du ebatzi gabe utzi bere ezagutzapean dagoen erreklamaziorik, arrazoizko susmorik aurkeztu barik edo lege-manuetan gabeziaren bat dagoela adierazi barik. Ematen diren ebazpenetan, oinarritzat hartu diren egitatezko aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak jaso beharko dira, eta horien arabera espedientean agertzen diren auzi guztiak erabakiko dira, interesdunak aurkeztutakoak izan zein ez. Ebazpena baiestekoa edo ezeztatzekoa izan daiteke, edo onartezintasuna deklaratu dezake. Baiesteko ebazpenak osorik edo partez deuseztatu dezake errekurritutako egintza, zuzenbide arloko arrazoiengatik edo formazko akatsengatik.

Ebazpenean erreklamatzaileraren defentsa-aukerak murriztu dituzten formazko akatsak aipatzen direnean, egintza ukitutako zatian deuseztatuko da eta jarduketaren eragina atzera eramanean dadila aginduko da, formazko akatsa sortu zen unera.

Atzera-eragina dagoen kasuetan izan ezik, ebazpena Zerga Administrazioaren erregistroan sartzen denetik aurrera hilabeteko epean betearaztearen ondoriozko egintzak jakinarazi egin behar izango dira. Ebazpena onartezina izango da jarraiko kasu hauetan:

- Bide ekonomiko administratiboko erreklamazio edo errekurtsorik ezin jarri zaien egintzak edo ebazpenak aurkaratzen direnean.
- Erreklamazioa epez kanpo aurkezten denean.
- Erreklamazioa zein egintza edo jarduketaren aurka jartzen den adierazten ez denean.
- Erreklamazioa jartzeko idazkian ageri den eskaerak errekurritu den egintza edo jarduketarekin zerikusirik ez duenean.
- Legitimazio edo ordezkaritza akatsak daudenean.
- Erreklamazioa jarri zaion egintzaren oinarri bakarra beste egintza irmo eta onartu bat denean; lehenagoko egintza irmo eta behin betikoen berdinak diren egintzak errekurritzen direnean; onartutako beste egintza batzuk berresten dituzten egintzak errekurritzen direnean; eta gauza epaitua dagoenean.





Ebazpenak erabateko eraginkortasuna izango du erreklamazioa dagoela jakinarazi zaien interesdunei dagokienez. Halaber, partikularren jarduketei edo ez-egiteei buruzko erreklamazioetan FAEA-ak ematen dituen ebazpenek lotu egingo dute Zerga Administrazioa, ebazteko kontuan hartu diren egitateen kalifikazio juridikoari dagokienez, egiaztatzeko eta ikertzeko ahalak gorabehera. Horretarako, ebazpenok jakinarazi egin behar izango zaizkio Zerga Administrazioari.

Partikularren jarduketei edo ez-egiteei buruzko erreklamazioen ziozko ebazpenetan legez ezarritako epean ez bada betetzen faktura egiteko betebeharra ezartzen duen Auzitegiaren ebazpena, orduan, erreklamatzailerak eragiketa dokumentatzen duen faktura egin ahal izango du, erreklamatuaren izenean eta kontura. Horretarako:

- Faktura egiteko ahalaren erabilera idatziz jakinarazi behar zaio Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioari, eta adierazi epaia ez dela bete eta dagokion faktura egingo dela. Halaber, erreklamatzailerak jakinarazi behar dio erreklamatuari ahal hori erabili egingo duela faktura jaso izana egiaztatzen duen edozein bitarteko erabiliz.
- Erreklamatzailerak prestatuko du eragiketa dokumentatzen duen faktura; bertan, eragiketaren jasotzaile gisa agertuko da, eta betebeharra bete ez duena, berriz, fakturaren egile gisa.
- Erreklamatzailerak fakturaren kopia bidaliko dio erreklamatuari, eta beretzat gordeko du fakturaren jatorrizkoa. Halaber, Zerga Administrazioari bidaliko dizkio fakturaren kopia eta Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan aurkeztutako idazkia, non jakinarazi baitzen ez zela bete emandako ebazpena.

Zergapeko beraren beste zerga-betebehar batekin lotuta dagoen zerga-betebehar baten likidazioaren aurkako erreklamazioa osorik edo partez baiesten duen ebazpen bat betearazten denean, errekurritu ez den betebehar lotua erregulatu egingo da, baldin eta Administrazioak aplikatu badizkio erreklamatu den zerga-betebeharraren likidazioaren oinarri izan diren irizpideak edo osagaiak.

Prozeduraren gehieneko iraupena erreklamazioa aurkezten denetik urtebetekoa izango da. Epealdi hori amaitutakoan interesatuak gaitz iritzizat jo dezake erreklamazioa eta bidezko errekurtsua jarri. Nolanahi ere, auzitegiak berariazko ebazpena eman behar du. Berariazko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen errekurtsuak aurkezteko epealdiak.

Edonola ere, Auzitegiak uste badu aurkaratutako egintzak beste eremu edo jurisdikzioren bateko prozedura batean emango den ebazpen baten eraginpean gerta daitezkeela, jarduketak gelditzeko agindu dezake, arrazoiak azalduta eta interesatuak esateko duena entzun ondoren. Hala gertatuz gero, ebazpena emateko epealdiaren kontaketa haiek amaitu arte etengo da, bai eta preskripzioaldia ere. Urte bat igaro bada eta oraindik ez bada berariazko ebazpenik eman, berandutze- interesaren sortzapena gelditu egingo da.



Bestalde, ebazpen Ekonomiko Administratiboak betearazteko egintzek zehatz beteko dute ebazpenotan xedatutakoa. Interesduna ebazpena betearazteko emandako egintzekin ados ez dagoenean, betearazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztu ahal izango du, zeina Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak ebatziko baitu. Errekurtso hau hilabeteko epean jarriko da, betearazpen-egintza jakinarazi eta biharamunetik aurrera hasita. Prozeduraren arau orokorrekin bat arauko da errekurtsua, eta ofizioz kenduko dira arazoa ebazteko ezinbestekoak ez diren izapide guztiak. Inola ere ez da onartuko errekurritutako egintzen etendura, ez bada gai berririk planteatzen betearazi beharreko ebazpen Ekonomiko Administratiboari dagokionez.

Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak zenbait kasutan betearazpenaren aurkako errekurtsua onartezina dela deklaratu du, hain zuzen: errekurtsuan planteatutako gaiak betearazi beharreko ebazpenean dagoeneko erabakita dauden arazoekin lotuta daudenean; gai horiek planteatu zitezkeenean erreklamazioan, zeinaren ebazpena betearazi behar baita, eta ebazpena onartezina dela esateko araututa dauden kasutan.

## VI. Deuseztatze-errekurtsua

Salbuespenez, erreklamazio ekonomiko administratiboen aurka, deuseztatze-errekurtsua jarri ahal izango da Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, kasu hauetan:

- Erreklamazioa onartezina dela behar bezala deklaritzen ez denean.
- Behar den moduan aurkeztutako alegazioak edo frogak baliagarriak ez direla deklaritzen denean.
- Ebazpenean erabateko eta ageriko inkongruentzia dagoela alegatzen denean.
- Jarduketak artxibatzeko erabakiaren aurka ere jarri ahal izango da deuseztatze-errekurtsua.

Deuseztatze-errekurtsu baten ebazpenaren aurka ezin izango da beste deuseztatze-errekurtsu bat jarri eta deuseztatze-errekurtsua ezin izango da aurkeztu berrikuspen-errekurtsu berezi baten ebazpenaren aurka.

Errekurtso honen izapidetzari dagokionez, errekurtsu-idazkian alegazioak jasoko dira, eta dagozkion frogak erantsiko zaizkio. Auzitegiak hiru hilabeteko epean ebatziko du, izapide gehiago egin gabe; ebatzi ezean, errekurtsua ezetsi dela ulertuko da.